



[Eusk.]

2024ko ARGAZKI LEHIAKETA – 2025eko EGUTEGIA

2025eko bailarako egutegia hornitzeko argazki lehiaketaren oinarriak:

1. Helburua.

Larraungo eta Lekunberriko Udalek **2025eko bailarako egutegia** hornitzeko argazki lehiaketa bat antolatu dute.

2. Parte hartzaileak.

Argazki lehiaketan parte hartu dezakete **14 urtetik** goragoko pertsonak, eta **Larraun edo Lekunberrin erroldatuak izatea**.

3. Oinarrien iragarpena.

Larraungo eta Lekunberriko Udalek **bere webguneetan** emanen dute deialdiaren berri, baita Udaletako zein Kultura Saileko **iragarki**-taulan eta **sare sozialetako** profil ofizialetan ere.

4. Lehiaketaren baldintzak.

- Bailarako egingo dugun egutegi honek **Larraun eta Lekunberri urtean zehar duen bizimodua** eta aisialdia islatzea izango da xede nagusia. Horretarako, urte osoari kolorea emateko, bi gai ireki izango dira:
 - 1. **PAISAIK, LEKUAK**. Bertako herrietako kaleak, enparantzak, inguruko paisaiak, etxeak eta txokoak...
 - 2. **OSPAKIZUNAK**. Gure bailaran ospatzen ditugun festa eta ospakizunak: Inauteriak, Agate Deuna Bezpera, azokak, Larraungo Eguna, Sagardo Eguna, herrietako festak, Gau Beltza, Gabonak... eta gurean ospatzen ditugun beste hainbat ekintza.
- Partaide bakoitzak **gutxienez 2** irudi bidali beharko ditu eta **gehienez 6**. Lanak proposatutako gaietara **egokitu** beharko dira, argi eta garbi geratuz **irudia Lekunberri edo Larraungo bailaran hartuta** dagoela.
- Irudiak **koloretan ala zuri-beltzean** izan daitezke.
- Aurkezten diren irudi guztiek **jatorrizkoak edo argitaratu gabeak** izan behar dute, egungoak edo artxibokoak, eta ezingo dira beste lehiaketa batean sariturik izandako argazkirik aurkeztu, ez eta beste moduren batean erakutsi, argitaratu edo zabaldutakoak ere.
- Argazkiak orientazio **horizontalean** eta **formatu digitalean** aurkeztu beharko dira, **JPEG ala PNG** eran, inprimatzeko **kalitate onekoak** (ez dira 1MB baino gutxiagoko lanak onartuko), eta formatu horizontalean eginak. Baloratuko da telefono mugikorren iragazki-sortzaileak **ez** erabiltzea, edo hala bada hauek kalitatezkoak izatea.
- Argazkiak helbide honetara bidali beharko dira: **kultura@lekunberri.eus**, epea zabalik dago **2024ko azaroaren 4tik 29ra**, barne. Helbide horretara WeTransfer bezalako plataformetatik bidaltzea ere baimenduta egongo da.
- Irudi bakoitza bere izenburuarekin izendatu beharko da, eta **ezin izango da inolaz ere argazkiaren egilea identifikatu**. Argazkiek ez dute sinadurarik edo ur-markarik izango. Argazkiekin batera, **PDF formatuan** egongo den dokumentu bat bidali beharko da, eta bertan argazkiaren izenburuekin batera **egilearen datuak** azalduko dira: izen-abizenak, helbidea,

telefono zenbakia eta posta elektronikoa zehaztuko dira. Honekin batera, partaidea adinez txikikoa bada, beren guraso edo tutoreen **baimen ohar** bat ere igorri beharko da, guraso/tutorearen datuekin, partaidearen datuekin lehiaketan parte hartzeko eskumena ematen diola adieraziz.

- Parte-hartzaileen erantzukizuna izango da **hirugarrenei eskubiderik ez egoteaz**, eta irudi-eskubideak direla-eta erreklamazioak egongo balira. Partaideak **argazkien jabetza intelektual**a gordeko du, baina Lekunberri zein Larraungo Udalek argazkiak **argitaratu eta erabiltzeko eskubidea** izango dute, irabazle izan ala ez. Honek **ez** dio egileari inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango, eta ez da horien irabaziko erabilerarik egingo.

5. Epaimahaia.

Argazkiak aukeratzeko epaimahaia argazkigintzaren munduko pertsonak edota Udaletako ordezkari zein langileek osatuko dute. **2024ko abenduaren 10ean argitaratuko** dira argazki saridunak eta irabazleak bi Udalen komunikabideetan, eta orduan iragarriko da sari-banatzearen data eta formatua. Argitaratu aurretik, sarituei berria emango zaie. Epaimahaiak lehiaketa **hutsik** uzteko eskubidea izango du.

6. Balorazio irizpideak.

Aurkeztutako lanak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

1. Proposatutako **gaiarekiko** lotura.
2. Irudiaren **estetika**.
3. **Egutegirako** aproposa izatea.

7. Sariak.

Egutegirako hautatutako hamabi argazkiek **50€-ko sari bana** jasoko dute. Honetaz gain, **portadan** ezarriko den argazkiak 50€-ko **bigarren sari bat ere** jasoko du. Sariok transferentzia moduan saritutako pertsonaren kontu zenbakira, Udaleko gastu korronteen aurrekontu sailerako karguarekin. Horretaz gain, hautatutako irudiak, egiletza behar bezala aipatuta, 2025. urteko **bailarako egutegian sartuko** dira eta etxe guztietara banatuko da. Gabonetan **sari-banaketa** antolatuko da, aurrerago iragarriko dena.

8. Oinarriak onartzeko konpromisoa.

Lehiaketan parte hartzeak **oinarri hauek onartzea** dakar, ondorioz, horiek ez betetzeak lehiaketatik kanpo utziko ditu parte hartzaileak.

9. Izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko informazioa.

Larraungo eta Lekunberriko Udalak dira **izaera pertsonaleko datuak** tratatzeko arduraduna. Datuok Udalek antolatutako jardueretan herritarren parte-hartzea kudeatzeko erabiliko dira, botere publikoen jardunean. Datuak, indarrean dagoen legeriari jarraituz, lagatzen ahalko dira. Datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, **udal bulegoetara** joz. Lehiaketa honekin lotutako izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria ikus dezakezu www.larraun.eus eta www.lekunberri.eus webguneetako lege-oharrerako atalean.

Larraungo eta Lekunberriko Udalek eskubidea gordetzen du irabazleen eta hauen senideen izena eta/edo irudiak zabaltzeko, egoki deritzon bitarteko eta formetan, **lehiaketa ezagutzera emateko**. Halaber, Udalek konpromisoa hartzen dute argazki horien erabilerak ohorearen, intimitatearen eta norbere irudiaren aurkako kalterik sortu ez dezan, datuen babeserako eta ohorerako, intimitaterako eta norbere irudiaren gaineko legeria errespetatuz. Bestalde, hartutako eta zabaldutako irudi horientatik **ez dela inolako konpentsaziorik** emanen jakinarazten dute.



[Cast.]

CONCURSO FOTOGRÁFICO 2024 – CALENDARIO DE 2025

2025eko bailarako egutegia hornitzeko argazki lehiaketaren oinarriak:

1. Objeto.

Los Ayuntamientos de Larraun y Lekunberri han organizado un concurso fotográfico para dotar el **calendario para el valle de 2025**.

2. Participantes.

Pueden participar en el concurso de fotografía las personas **mayores de 14 años y empadronadas en Larraun o Lekunberri**.

3. Predicción de las bases.

Los Ayuntamientos de Larraun y Lekunberri darán a conocer la convocatoria en sus **páginas web**, así como en el **tablón** de anuncios de los Ayuntamientos y del Área de Cultura y en los perfiles oficiales de las **redes sociales**.

4. Condiciones del concurso.

- El objetivo principal de este calendario para el valle es reflejar el **modo de vida y ocio** de Larraun y Lekunberri a lo largo del año. Para ello, para dar color a todo el año, habrá dos temas abiertos:
 - 1. **PAISAJES, LUGARES**. Calles, plazas, paisajes, casas y rincones de sus pueblos...
 - 2. **CELEBRACIONES**. Fiestas y celebraciones que celebramos en nuestro valle: Carnavales, Santa Ageda, ferias, Larraungo Eguna, Sagardo Eguna, fiestas de los pueblos, Gau Beltza, Navidad... y otras muchas actividades que celebramos en nuestro entorno.
- Cada participante deberá enviar un **mínimo de 2** imágenes y un **máximo de 6**. Las obras deberán **ajustarse a las temáticas** propuestas, quedando claro que la imagen **está tomada en Lekunberri o valle de Larraun**.
- Las imágenes pueden ser en **color o blanco y negro**.
- Todas las imágenes presentadas deberán ser **originales o inéditas**, actuales o de archivo, y no podrán presentarse fotografías premiadas en otro concurso, ni expuestas, publicadas o difundidas de otro modo.
- Las fotografías deberán presentarse en **orientación horizontal y formato digital**, en forma de **JPEG o PNG**, de **buena calidad** impresora (no se admitirán trabajos de menos de 1 MB) y en formato horizontal. Se valorará que no sean imágenes captadas con teléfonos móviles o, en su caso, que sean de calidad.
- Las fotografías deberán enviarse a la siguiente dirección: **kultura@lekunberri.eus**, el plazo está abierto **del 4 al 29 de noviembre de 2024**, inclusive. También estará permitido enviar a esa dirección mediante plataformas como WeTransfer.
- Las imágenes deberán designarse con su título y **en ningún caso se podrá identificar** al autor de la fotografía. Las fotografías no tendrán firma ni marca de agua. Las fotografías deberán ir acompañadas de un documento en **formato PDF** en el que los títulos de la fotografía irán acompañados de los **datos del/la autor/a**: nombre y apellidos, dirección, número de teléfono

y correo electrónico. Adicionalmente, en el caso de que el participante sea menor de edad, deberá remitirse una **nota de consentimiento** de sus padres o tutores con los datos del padre/tutor, indicando que le faculta para participar en el concurso con los datos del participante.

- Los participantes serán responsables de la **ausencia de derechos a terceros** y de reclamaciones por derechos de imagen. La persona participante conservará la **propiedad intelectual** de las fotografías, pero tanto Lekunberri como los Ayuntamientos de Larraun tendrán **derecho a publicarlas y utilizarlas**, sean o no ganadoras. Esto no dará derecho al autor a remuneración alguna, ni se hará uso lucrativo de las mismas.

5. Jurado.

El jurado lo conformarán personas relacionadas con el mundo de la fotografía y/o empleados/as y representantes de los Ayuntamientos. Las imágenes ganadoras se publicarán el **10 de diciembre de 2024** mediante los medios de los Ayuntamientos, y entonces se anunciará el día de la entrega de premios y su formato. Antes del anuncio, se comunicará la noticia a las personas ganadoras. El jurado podría declarar el concurso **desierto** si así lo estima.

6. Criterios de valoración.

Las obras presentadas se valorarán según los siguientes criterios:

1. Relación con los **temas** propuestos.
2. **Estética** de la imagen.
3. Que sea apropiada para el **calendario**.

7. Premios.

Las **doce fotografías** seleccionadas para el calendario recibirán un premio de **50 €**. Además, la fotografía que se instale en la **portada** recibirá un **segundo premio de 50 €**. Los premios serán cargados al número de cuenta de la persona premiada en concepto de transferencia, con cargo al departamento presupuestario de gastos corrientes del Ayuntamiento. Además, las imágenes seleccionadas, con mención suficiente a la autoría, se **incluirán en el calendario** del valle del año 2025 y se distribuirán a todos los hogares. En Navidad se organizará la **entrega de premios**, que se anunciará más adelante.

8. Compromiso de aceptación de las bases.

La participación en el concurso supone la **aceptación de estas bases**, por lo que su incumplimiento excluirá a los participantes del concurso.

9. Información sobre el tratamiento de datos personales.

Los Ayuntamientos de Larraun y Lekunberri son los responsables del tratamiento de los **datos de carácter personal** que se utilizarán con la finalidad de gestionar la participación de la ciudadanía en las distintas actividades de los Ayuntamientos en el ejercicio de los poderes públicos. Los datos podrán ser cedidos en cumplimiento de la legislación vigente. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las **oficinas municipales**. Puede consultar la información adicional en relación al tratamiento de datos personales para el presente concurso en el apartado de aviso legal detallado sobre protección de datos en las páginas web www.larraun.eus y www.lekunberri.eus

Los Ayuntamientos de Larraun y Lekunberri se reservan el derecho de difundir el nombre y/o imágenes de las personas ganadoras por los medios o formas de comunicación que considere convenientes para la **divulgación del concurso**, se compromete a que la utilización de estas imágenes en ningún caso suponga un daño a la honra e intimidad, respetando la normativa en materia de protección de datos y el derecho al honor, a la intimidad y a la propia imagen. Por otra parte, informan que **no se realizará ninguna compensación** por las imágenes obtenidas y divulgadas.